

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko martxoak 12ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Ekosistema hezeetako eta ibaietako fauna eta flora autoktonoak hobetzeko ekintzak; 1.2. Hondakin organikoak batzeko eta garraiatzeko zerbitzua; 1.3. Zati organikoa batzeari buruzko Informazio Plana; 1.4. Eskolako Agenda 21; 1.5. Udalen kuoten eta hitzarmenen berrikuspena.
- **Abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzuaren lehiaketa:** Erabaki da udalerrri bakoitzak modu indibidualean kontratatuko duela, kontratu txiki gisa.
- **Hondakinak garbitzeko ekintzak, urbazter eta ubideetan:** Laguntza onartzea erabaki da. Eskatu da Udal bakoitzak jakinarazi beharko liokeela Eskualde Bulegoari non egin behar den udalerrri horretako ekintza.
- **Gizarte arloko klausulak kontratazioan:** udal kontratuetan eta lehiaketetan sartzen ari diren gizarte arloko klausulen berri emateko eskatu da. Eskualde Bulegoak praktika onak bilatuko ditu. Denak partekatuko dira, eta, azkenean, klausulen aukeraketa bat adostuko da, eskualdeko kontrataziorako.
- **Igogailuak mantentzeko lehiaketa:** Bat egin nahi duten Udalek honakoak bidaltzeko eskatu da: 1) parte hartzeko interesa eta datozen hilabeteotan parte hartzeko duten eskuragarritasuna; 2) kontratuaren xede diren igogailuen kopurua; 3) gaur egungo zerbitzuaren urteroko gastua; 4) dokumentazio hau izanez gero: zerbitzuaren ezaugarriak, kontratazioaren pleguak eta abar.
- **Hondakinak bereizteko kanpaina:** Kanpaina irailean abiaraztea erabaki da.
- **Eskualdeko Smart City Estrategia:** “Nerbioi-Ibaizabal, eskualde adimendun, konektatu eta eraginkorra” proiektuaren emaitzak aurkeztu dira.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:**
  - Martxoak 25, asteazkena, kontratoen bateratzea.
  - Apirilak 23, osteguna, ohiko Batzordea.
  - Apirilak 23, osteguna, S.L.ren Junta Orokorra.